

AMETSA BESTE AMETS BATEAN

Maialen Uriarte Alegria

Gernika-Lumo

Ametsak, ametsak eta amets gehiago. Oraindik, eguzkia sartu eta ilargia atera bezain pronto, oheratu eta begiak itxi gabe ere, amets nazkanteak egi-ten ditut. Aurpegia izerdiz estaltzen dut. Bertan urez eginiko larruazal bat banu bezala. Halako batean, eztanda egin eta tantaka-tantaka, masailean behera, lurrerantz doa, urmael sakonak sortuz, eta nire barruko sentimendu nahasgarri guztiak hustuz eta barrua garbituz. Postura aurkitzea ere ezin dut lortu. Buelta bat eman, beste bat eta beste bat izerdiz blai eginda jarri, eta oraindik itzarrik nago. Bueltarik ez duen arazoari biraka hasten naiz, alferrik. Baina nolatan sortu dut heriotza bat? Nire etsaia zen, baina orain lagun ona izan daitekeela pentsatzen dut, nahiz eta bere akatsak eduki, gustatzen ez zaizkidan akatsak. Erantzunik gabeko galdera hori dut buruan bueltaka, izarrei begira jartzen naiz pentsatzen eta... Riin, riin! Txirrinak amets ilun hartatik ateratzen nau, ez nago lo, begiak itxita egon arren, baina nire ametsetako mundutik ateratzen nau, derrepentean beste

mundu baten agertuko banintz bezala. Zoritxarrez errealitate purua da.

Mundu irrealetik atera, jantzi, gosaldu eta goize-ro bezala motxila pisutsua lepo gainean hartu eta ikastolaranzko bidean jartzen naiz. Berriro arazoa bueltaka, behin eta berriz errepikatzen dut gertae-ra hori buruan, bideo erreproduzitzaille bat banintz bezala. Huts handia egin dut eta barkatuta nago, berriz zerotik hasteko prest, baina ezin dut eginiko hura nire barrutik atera, eta inoiz irekiko ez den kutxa txiki batean gorde. Ezin dut. Beti izango dut nire izenean marka hori, errudun sentiarazi eta errudun egiten nauen hori. Ez da edozein hankasartze edo edozein kaikukeria. Tentelkeriak edonork egiten ditu, baina hau ez da umeok egiten ditugun gangarkeria horietako bat, edozein aitzakia esan, geure burua zuritzeko, eta horren bitartez zorakeria barkatzen diegun horietakoa.

Txatxukeria batek beste bat dakar atzetik, beste bat eta beste bat. Ez zara konturatzen, baina horrelaxe da, eta azkenean norbaiti bihotza bi zatitan banatzea lortzen duzu, baita zeurea ere, errudun edo hiltzaile sentitzen baitzara, zeure bihotza harrizkoa ez bada behintzat. Horixe da neuri gertatzen zaidana.

Egun euritsu eta normal batean heriotza bat, nik sortutakoa gainera. Motxila pisutsua ikastolara sartu orduko mahai gainean laga eta orduak mari jakintsuei entzuten, asper-asper eginda, infinituan galduta. Baina halako batean, nire gelakide batek

gustatzen ez zaidan halako keinu harrigarri bat egin zidan. Gorrotoa. Gorrotoa adierazten duen seinalea? Pentsakor gelditu nintzen. Zer esan nahi ote zuen? Mendekua agian? Ez dakit, buruan ideiak bueltaka eta ezin argitu keinu hura. Egia esateko, oso gaizki konpontzen nintzen berarekin. Ez galdetu zergatik, neuk ere ez dakit eta. Badira horrelako kasu asko, pertsona bat ez duzula atsegin esan, eta besteak zergatik galdetu orduko, buruari bueltaka hasi beharra izaten duzun kasu horietakoa. Baina badakit gure artean beti egon zela halako harresi antzeko bat zerbait banatzen gintuena. Gure begiradak ebakitzen saiatzen zen guk imajinatutako harresi bat.

Jolas ordua iritsi zenean lehenengo egin nuena mahaia aurrerantz bultzatu eta korrika bizian, Anagana, zeinu bitxia egin zidan ikaskidearengana, joatea izan zen esplikazio eske. Erantzunik ez. Mendekua horixe besterik ez zidan argitu, neuk pentsatzen nuena. Momentu horretan ez nekien zer pentsatu, edo ni nintzela burua oso ondo ez neukana, ardura gehiegi ematearren, edo bera zela torlojuren bat erori zitzaiona. Baina laster biztu zitzaidan argi bako bonbila hura, infinituan bere argia galduta zeukana eta halako batean piztu zena.

Di-da batean gertatu zen dena. Halako batean isiltasun eske hasi zen Ana. Pentsatu nuen neure azkena izango zela, lotsaz hilko nintzela, baina ez, ia-ia hil nintzen, baina ez lotsaz, amorruez baizik. Baina nolatan? Nolatan hasi zen nire akatsak kon-

tatzen? Ez nintzela beraien mailako pertsona, eta abar eta abar. Oraindik haurrak ginen bai, baina hark, oraindik amaren gonapea utzi eta heldu izateko biderantz ere ez zela abiatu zirudien hizketaldi hura entzuten ari zenarentzat. Haurtzarotik heldu izateko geltokira eramaten zaituen bafadaka doan trena galdu zuela ematen zuen.

Ez nuen ulertzen. Gorrotoa bale, baina zer egin ote nion nik, beste barik, ikasle soil batek, hori dena gelakideen aurrean aurpegiratzeko?

Ez dakit zer pasatu zen nire barruan, borborka hasi zitzaidan barnean nuen guztia eta burutik kea ateratzen hasi zitzaidan, sumendia banintz bezala. Ezin nuen gehiago, eskuak ireki ireki egien eta... Danba! Bultza egin nion ikasleari. Bultzaka eta bultzaka, jo eta ke batak besteari kristorenak esanez, begiak atera beharrean ibili ginen. Irain eta bultzakada haiek banekien ez zutela ezertarako balio, hutsaren hurrengoak zirela, baina beno, ni hasi eta berak jarraitu, besterik ez da behar borroka bat sortzeko.

Gelako guztiak gure ingurura hurbildu ziren, espektakulurik onena izango balitz bezala. Iskanbila izugarri haren atzetik andereñoak ere agertu ziren.

Bat gu banantzen etorri zen arte iraun zuen guztiak. Bakeak egin, eskuak eman eta adiskidetu. Horixe egin beharra izan genuen. Ez dakit zergatik baina ez nengoen harro neure buruaz. Ketao sentitzen nintzen eta neure burua ondo gelditzeko asmatan, andereñoa paretik kendu eta Anari sakakada

bat eman nion. Horren ondorioz, Ana horman zegoen leiho irekitik zuzen-zuzenean irten zen, haizea baino bizkorrago, pisurik izango ez balu bezala, bidean galduriko haizeak zeraman txoria bezala. Ez nuen nahita egin, baina gertatu zen. Bizitzaren bidean dauden tranpa horietako bat izan zen, eta oso-oso erori nintzen amorruak bultzatuta.

Begiak itxi nituen ikaraz eta sustoz, baina ireki nituenerako berri tristea ahoz ahoz zebilen ikastolan: “Ana hil da, Maialen gure gelakideak leihotik jaurti du. Kontuz, hiltzaile bat dugu ikastolan!”

Anbulantziak batetik, eta bestetik negarra, ez nekien zer egin. Galduta nengoen, mundu infinituan zehar pausoak eman eta irtenbiderik aurkitu ezinean. Harro sentitzeko egin nuen bultzakada hura, baina harro sentitu beharrean kaka multzo bat baino txarrago sentitzen nintzen. Ezereza. Horixe. Gainera, zelako iskanbila sortu nuen, ezin du inork ere imajinatu, momentuan ekintza hori bizitzen ez bazaude. Bere gurasoak ere etorri ziren salaketa jartzera. Nire gurasoak ere ez zuten hori nitaz espero, baina niri horrek guztiak ez zidan axola. Axola zitzaidana zen pertsona bat hil nuela. Hil! Eta, oso txarto, ez zela nahiko, nola nengoen adierazteko. Ez nekien zer esan. Ez nola azaldu. Kikilduta nengoen, mundu guztia neure kontra balego bezala, eta ni bakarrik, lagun gabe, eta are txarrago, familiaren laguntasunik gabe, bakartasun ilunean murgildurik.

Baina, hala ere ulertzen nuen. Bizitza justua da, gauza guztietarako. Beno, ia denerako. Badaude

kasu batzuk ez direnak justuak, landa batean etzan eta zeure buruari, hodeietarantz begiratzen, behin eta berriz galdetzen dizkiozun horietakoak, eta bizitza injustua dela pentsarazten dizuten injustizia horietakoak. Baina beno, horiek denek, ez dute inportantziarik pertsona bat hiltzearen aldean. Bakar bat dago inportantzia handiagoa duena, zeure burua gutxieste, baina hori, neuri ere pasatzen zitzaidan. Hori ere, neuri gertatu behar!

Denborarekin gurasoek, andereñoek... barkatu zidaten, lagunak ere barkatzera heldu ziren, baina Anaren gurasoek inoiz ez ninduten barkatu. Beraiek, atera ezineko zulo ilunean betirako gelditzea beste erremediorik ez zuten, euren alabaren heriotza inoiz onartzen saiatu gabe. Ulergarria. Nire gurasoek ere kasu berdinean baleude, gauza bera egingo zuket, hori gustatuko zitzaidakeen niri behintzat. Gainera, beste bat egongo litzateke inoiz, bizitza osoan, barkatuko ez nindukeena. Nire buruak ez nindukeen inoiz barkatuko, sekulan ez.

Dena dela, axola zitzaidan gauza bakarra zen berak barkatzea, erreguka barkamen eske joan behar banintzaio ere, edo beste ezer egin behar banuen ere, prest nengoen, eta hori ez nuen inoiz jakingo. Denboran atzera egin izan ahal banu... Eta eginiko akats guztiak zuzendu... Baina ez. Nire bizitzan existitzen zen gauzarik ezinezkoena, momentu hartan horixe zen, eta bizitzan aurrera egiteko bidea aurkitu behar nuen, horixe besterik ez neukan eskuartean, bizitza zerotik hastea.

Errealitate hura larregi zen niretzat, ezin nuen gehiago. Ezin nuen gehiago! Ai amaaa...!

Plaut! Lurrean nengoen. Eskuak buruan jarrita eta izerditan blai. Eskuek laprast egiten zidaten aurpegian behera. Begi pisutsuak ireki eta ingurura begiratu nuen. Beste toki batean nengoen. Oraingo hura errealitatea ote? Hainbeste amets bata bestearen gainean, nahastuta nengoen. Aurpegian atximurka egin eta bai! Oraingo hone-tan errealitatea zen. Ez nuen inor hil, ez inori bul-tzarik egin. Ez nintzen ikastola osoan ezaguna heriotza batengatik, denboran atzera egin beha-rrik ez nuen, eta ingurura begiratuta, maitasuna ikusten nuen dantzari, niri goxo-goxo laztan egi-ten, muxu goxoak emanaz.

Lurrean etzanda, burua nire hanken kontra jarri nuen, begiak gogor gogor itxiz.

Ez nuen inoiz ulertuko. Amets bat beste amets baten barruan. Errealitate bat beste baten gainean. Nola da posible errealitatean zauden edo ez, ez jakitea? Bizitza nondik nora doan ez jakitea? Nola da posible? Batek daki!